

2014ko martxoaren 6ko Ohiko Osoko Bilkuraren akta onartu ondoren, batzar horretan onetsitako ebazpenen laburpena eman da argitara:

1.- MARTXOAREN 8A, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA. ADIERAZPENA.

Martxoaren 8aren, Emakumeen Nazioarteko Egunaren, adierazpena onartu zen: EMAKUME GUZTIAK, ESKUBIDE GUZTIAK, EGUNERO”.

2.- BOLATOKI-GIMNASIOAREN HORNIDURA KANONA MURRIZTEA

Obra publikoaren kontratua emateko oreka ekonomikoa lehengoratzeko eta kanona %25 murriztea erabaki da. Gehienez lau urtean egingen da, eta urtero berraztertuko, kontuen egoera eta emaitzen balantzea zein diren. Hartara, urteko kanona 100.341,45 € izanen da, BEZ kanpo.

3.- AR-1 ETA AR-3 UDAL PLANAREN ALDAKETA EGITURATZAILEAREN HASIERAKO ONESPENA.

Udal Planaren Aldaketa Egituratzailerak hasiera batez onestea ebatzi da. AR-1 banaketa eremuari eragiten dio (horren azalera murrizten da, bere lursail gehienak sartuko baitira Cordovillako Udaleko eta Iruñeko Udaleko —Donapea— bizileku eremuaren PSISen egin den antolamenduaren barnean), eta AR-9 banaketa eremu berria sortzen du, AR-1-tik desagertutako antzeko azalera duen Sistema Orokor batek eratua.

4.- EUSKARA IKATEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA HASIERA BATEZ ONESTEA

Helduak Galar Zendea Euskara Ikasteko Diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza hasiera batez onestea eta jendaurrean jartzea ebatzi da. Beraz, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Irigariki Oholean argitaratu ondoren 30 egunez egonen da jendaurrean ebazpen hau, herritarrek eta bidezko interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egiteko.

OHARRA.- Ordenantza NAOn argitaraturik, 2014ko maiatzaren 9an akitu zen jendaurreko epea, eta alegaziorik jaso ez zenez, hasierako onespeneren ebazpena behin betikoa da hemendik aitzina.

Ordenantza indarrean sartuko da horren testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean.

1.- ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO DIRU LAGUNTZAK.

I.G.B jaunari 1.051,78 €-ko diru-laguntza bat eman zaio, 1996ko Udal Ordenantzaren, ekainaren 29koaren, babespean. Izan ere, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALAREN 119. zenbakian argitaratu zen Ordenantza, 1996ko irailaren 30koan.

2.- CORDOVILLAKO S-4 SEKTOREAREN P.6 LURSAILAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BETIKO ONESPENA

Osoko Bilkurak betiko onetsi du Cordovillako “El Llano” S-4 Sektoreko P-6 Lursailaren a, b, c, d, e eta f azpilursailen Xehetasun Azterlana, Mikel Munárriz Mutilvak eta Olatz Naiara Eslava Abaurreak sustatuak. Era berean, testu bategina aurkeztu beharko dutela zehaztu da. Bertan berariaz jaso beharko da esparruak 6 azpilursailei eragiten diela eta terraza lauak eraikitzeko aukera soilik debekatuko dela etxebizitzaren fatxada nagusian.